

Erakunde Autonomoen, Sozietate Publikoen eta Fundazioen Analisia

2013ko ABENDUA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Erakunde Autonomoen, Sozietate Publikoen eta Fundazioen Analisia

2013KO ABENDUA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jurlaritzako Liburutegi Nagusiaren
katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2014ko otsaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1. 2008-2010eko BILAKAERA	6
2. PROFILA ADMINISTRAZIO-MAILAREN ARABERA	9
2.1. Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundeak eta horren partaidetza dutenak	9
2.2. Foru-aldundien mendeko erakundeak eta horien partaidetza dutenak	11
2.3. Udalen mendeko erakundeak eta horien partaidetza dutenak	13
2.4. Partaidetza anitzeko erakundeak	16
3. SEKTOREKAKO IKUSPUNTUA	18
3.1. Erakunde espezializatuak	18
3.2. Espezializatu gabeko erakundeak	20
4. LURRALDEKAKO IKUSPUNTUA	23
5. LABURPENA	25
I. ERANSKINA. Erakundeen zerrenda izaera juridikoaren arabera	26
II. ERANSKINA. Erakundeen zerrenda lurralde historikoen arabera	28
III. ERANSKINA. Erakundeen zerrenda espezializazioaren/sektorearen arabera	30

Finantzaketa eta gastu publikoa kulturen estatistikan jasota dago EAEko administrazio baten edo batzuen mendeko erakunde autonomoei, sozietateei eta fundazio publikoei zein haien %100eko partaidetza dutenei buruzko informazioa. Txosten horretan agertzen dira, orobat, administrazioaren eskutik 500.000 euro baino gehiagoko transferentziak jaso dituzten partaidetza publikodun erakundeak. Hala, bada, sektore publikoa logika barneratzailetik hartzea lehenetsi du estatistika honek.

2010eko ikerlanean aipatutako ezaugarriak dituzten 50 erakundek hartu zuten parte; hain zuzen ere, 7 Arabakoak, 20 Bizkaikoak eta 17 Gipuzkoakoak. Erakunde horien profila askotarikoa da: udaletako kultura-kudeaketan jarduten duten erakunde autonomoak, musika-irakaskuntzan dihardutenak, museoak, antzokiak, orkestrak, jaialdiak, ondarea zaintzen diharduten erakundeak edo EITB. Administrazioen partaidetza ere ez da beti bera: erakunde batzuek administrazio bakar baten partaidetza dute, esaterako erakunde autonomoek; beste batzuek, berriz, profil mistoa dute, eta kasuen arabera ehuneko desberdinekin.

Analisi honetan horiek guztiak jaso dira, beren aurrekontuetan dituzten baliabide publikoen pisua aintzat hartu gabe, izan ere, erakunde horien ezaugarri orokorretan arreta jartzea da ikerlanaren helburua¹. Analisiak lau ikuspuntu ditu:

Lehen kapituluak 2008-2010 urteen arteko bilakaera aurkezten da, ikerlanean sartutako erakunde autonomoei, sozietateei eta fundazio publikoei dagokienez, bai eta horiek likidatutako gastua eta sortzen duten enplegua ere.

Bigarren kapituluak erakunde horien izaera juridikoa eta administrazio-maila bakoitzaren partaidetza-maila, zein ekarpena aztertzen dira.

Hirugarren kapituluak sektoreen edota espezializatutako arloen ikuspuntua jorratzen da, bai eta espezializaziorik gabeko erakundeena ere.

Laugarren kapituluak lurraldearen ikuspuntutik dauden berezitasunak aztertzen dira.


Txostena emaitza nagusien laburpenaz amaitzen da.

¹ Gastu publikoaren estatistikan, erakundearen gastua ez da erabat gastu publikotzat jotzen baldin eta EAEko administrazio publikoetatik jasotzen dituzten baliabideen ehunekoa %50etik beherakoa bada.

2008-2010EKO BILAKAERA

Aztertutako bi urteetan (2008-2010) gora egin du, administrazio-maila guztietan, erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kopuruak. Arrazoi estatistikoak direla-eta 2010eko erroldan sartutako eragileek eragin dute, funtsean, igoera hori, eta ez hainbeste erakunde berrien sorkuntzak. Hain zuzen ere, bi fundazio sortu dira epe horretan: Cristóbal Balenciaga Fundazioa eta Añanako Gatz Harana Fundazioa.

1. irudia **Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publikoen kopurua, administrazio-mailaren arabera** 2008-2010



2010eko estatistikan sartutako erakundeek hainbat administrazioen partaidetza dute, eta lurralde historiko- zein erkidego-irismeneko proiektuei dagozkie. Bestek beste, museoen eta ondarearen arloetan espezializatuak dira².


Ez da aldaketarik izan aztertutako bi urteetan administrazio-maila bakoitzak bereak dituen erakundeetan.

² Ekain Fundazioa, Arabarri, Añana Gatz Harana Fundazioa, Santa Maria Katedrala Fundazioa, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Cristóbal Balenciaga Fundazioa.

2. irudia

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publiko kopurua osaketaren arabera, administrazio-mailen arabera

2008-2010



Erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publikoek likidatutako gastuaren bilakaera aldatu egiten da EITB sartu edo ez sartu. Eta jakina, erakunde publiko horren aurrekontua 7,9 milioi eurotan murriztu izanak eragina du osotasunean.

3. irudia

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publikoek likidatutako kultura-gastua

2008-2010

	Urtea	Guztira EITB barne	Guztira EITB kanpoan utzita
Likidatutako gastua	2008	352.855.671	165.283.076
	2010	350.316.928	170.677.631

Enpleguari dagokionez, igoera %6 ingurukoa izan da. Zehaztu beharra dago EITBren kasuan enplegu propioa dela, eta urte osoko 947 lanpostu izatetik 1.015 lanpostura izatera igaro dela.

4. irudia

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publikoen enplegua (urte osoko lanpostuak)

2008-2010

	Urtea	Guztira EITB barne	Guztira EITB kanpoan
Erakundeko langile propioak	2008	2.230,1	1.283,1
	2010	2.378,7	1.363,7
Azpiktratatutako langileak	2008	383,5	383,5
	2010	409,3	409,3
Enplegua guztira	2008	2.613,6	1.668,6
	2010	2.788,0	1.773,0

PROFILA ADMINISTRAZIO-MAILAREN ARABERA

Kapitulu honetan aztertzen dira mendeko erakundeen edo hiru administrazio-mailen partaidetza duten erakundeen profilak. Erakunde horiek identifikatu eta horien izaera juridikoa aztertzen da, bai eta administrazio-maila bakoitzaren partaidetza-maila eta ekarpena ere.


2.1. Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundeak eta horren partaidetza dutenak

Eusko Jaurlaritzak bi sozietate publiko ditu kultura arloan: Euskal Irrati Telebista eta Euskadiko Orkestra.

5. irudia

Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko eta fundazioen zerrenda, partaidetza-mailaren eta izaera juridikoaren arabera

2010



Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten erakundeei dagokienez, sozietate publikoen artean bi jaialdi (Zinemaldia eta Musika Hamabostaldia) eta Tabakalera daude; fundazioak, berriz,

museoak dira ia denak, Ekaineko kobaren erreplika izan ezik. Eredu ohikoenean, Eusko Jaurlaritzak heren bateko partaidetza du, dagokion foru-aldundiarekin eta udalarekin batera.


Aurrekontuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten gainerako erakundeeen oso gainera dago EITB. 2010ean, erakunde publiko horri egindako transferentziak 143,5 milioi eurokoak izan ziren, eta EOrri egindakoak, berriz, 7,5 milioi eurokoak.

Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten erakundeei ekarpen desberdinak egiten dizkie: Guggenheim Bilbao Museoak 4 milioi euro jasotzen ditu, eta Gernikako Bakearen Museoa Fundazioak, berriz, 100.000 euro pasatxo.

6. irudia

Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten sozietate eta fundazio publikoei egindako transferentziak

2008-2010



2.2. Foru-aldundien mendeko erakundeak eta horien partaidetza dutenak

Aldundien sozietate publiko biak Bizkaiko foru-administraziokoak dira: Euskalduna Jauregia eta Rekalde Aretoa. Partaidetza duten sozietate publikoei dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartzen du parterik gehien era horretako erakundeetan (Zinemaldia, Musika Hamabostaldia eta Tabakalera). Arabarri sozietatean berriz, Arabako Foru Aldundiak du partaidetza nagusia.


Fundazioei erreparatuta, seik jasotzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza: bost museoak dira (FMGB, Bilboko Arte Ederren Museoa, Bakearen Museoa, Bilboko Berreginen Museoa, Arkeologia Museoa eta Euskal Museoa Bilbao), eta seigarrena, orkestra bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, hiru fundaziotan hartzen du parte (Balenciaga, Ekain eta Kursaal), eta Arabakoak beste hainbestetan (Santa Maria Katedrala, Artium eta Añanako Gatz Harana).

Partaidetza-mailari dagokionez, ehunekoak %25 eta %66,7 bitartekoak dira.

7. irudia

Foru-aldundietako sozietate eta fundazio publikoen zerrenda, partaidetza-mailaren eta izaera juridikoaren arabera

2010




Foru-aldundien partaidetza duten erakunde kopuruak eta horien ezaugarriek eragina dute jasotzen dituzten transferentzia zenbatekoan, foru-aldundiak beak dituen erakundeekin alderatuz gero. Gainera, aintzat hartu behar dira, 2010eko estatistikan berriak diren erakundeak ere.

8. irudia

Foru-aldundien partaidetza duten sozietate eta fundazio publikoei egindako transferentziak

2008-2010




2.3. Udalen mendeko erakundeak eta horien partaidetza dutenak

• Hiriburuak

Euskal hiriburuak biizaera juridiko baino ez dituzte haien partaidetza duten erakunde entzat: sozietate publikoak (Arriaga Antzokia eta Donostia Kultura) eta erakunde autonomoak, musika- zein dantza-irakaskuntzarekin lotutakoak.

Hiriburuetako udalen partaidetza duten sozietate publiko eta fundazioen artean, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien atalean aipatutakoak daude. Bilboko eta Donostiako udalek launa erakundetan hartzen dute parte; Gasteizko udalak, berriz, bitan (Artium eta Santa Maria Katedrala).

9. irudia **Hiriburuak partaidetza duten sozietate eta fundazio publikoen zerrenda, partaidetza-mailaren eta izaera juridikoaren arabera** 2010




Hiriburuen mendeko erakundeen aurrekontua zein handia den erakusten dute udaletatik jasotzen dituzten transferentziek: nabarmena da, kasu honetan, Donostia Kulturaren aurrekontua, 2010ean 16 milioi euro jaso baitzituen (kontuan hartu behar da sozietate horrek kudeatzen duela hiriko kultura-jarduera).

10. irudia

Hiriburuen partaidetza duten sozietate eta fundazio publikoei egindako transferentziak

2008-2010




• Gainerako udalak

Udalek erakunde autonomoak baliatzen dituzte, batik bat, kultura-zerbitzuak kudeatzeko eta emateko. Bi arlo hauetan erabiltzen dira, bereziki: udaleko kultura-zerbitzuak kudeatzeko eta arautu gabeko musika-irakaskuntzarako.

11. irudia Gainerako udaletako erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazio publikoen zerrenda, izaera juridikoaren arabera

2010



Transferentziei dagokienez, murrizketa nabarmena izan da 20.000 biztanletik gorako udalerrietan.

12. irudia Udaletako erakunde autonomoei, sozietate publikoei eta fundazio publikoei egindako transferentziak udalerriaren neurriaren arabera

2008-2010

Udalerriaren neurria	Urtea	Propioak	Partaidetutakoak	Guztira
>20.000 biztanle	2008	19.412.027 €	-	19.412.027 €
	2010	17.650.243 €	-	17.650.243 €
5.000 – 20.000 biztanle bitartean	2008	8.501.226 €	-	8.501.226 €
	2010	8.154.592 €	260.000 €	8.414.592 €
<5.000 biztanle	2008	237.229 €	-	237.229 €
	2010	281.567 €	-	281.567 €

2.4. Partaidetza anitzeko erakundeak

EAEko hiru sozietate publiko eta kultura-fundaziok jasotzen dute Estatuaren partaidetza: Cristóbal Balenciaga Fundazioak, Donostiako Zinemaldiak eta Artium Fundazioak.

Eusko Jaurlaritza, foru-aldundia eta udalaren artean heren bana ematen duten partaidetza-eredua bost erakundetan ikus daiteke: Ekain Fundazioa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Gernikako Bakearen Museoa, Tabakalera eta Donostiako Musika Hamabostaldia.

Foru-aldundia eta hiriburuaren arteko partaidetza hirutan ematen da: Bilboko Berreginen Museoa, Euskal Museoa, eta Kursaal Fundazioa.

13. irudia **Hainbat administrazioen partaidetza duten sozietate eta fundazio publikoen zerrenda, eta administrazio-maila bakoitzaren partaidetza-maila**

2008-2010

Erakundearen izena	Estatua. %	Eusko Jaurlaritza %	Foru- aldundiaren %	Udalaren %	Beste batzuen %
FMGB Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa	0,0	33,3	33,3	0,0	33,3
* Cristóbal Balenciaga Fundazioa	30,0	35,0	35,0	0,0	0,0
Arabako Artium Fundazioa	11,1	22,2	55,6	11,1	0,0
Donostia Zinemaldia SA	25,0	25,0	25,0	25,0	0,0
* Santa Maria Katedrala Fundazioa	0,0	0,0	50,0	25,0	25,0
* Ekain Fundazioa	0,0	33,3	33,3	33,3	0,0
Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa	0,0	33,3	33,3	33,3	0,0
* Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa	0,0	33,3	33,3	33,3	0,0
Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea SA (Tabakalera)	0,0	33,3	33,3	33,3	0,0
Donostiako Musika Hamabostaldia	0,0	33,3	33,3	33,3	0,0
Juan Crisóstomo de Arriaga - Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa	0,0	0,0	66,7	33,3	0,0
* Añanako Gatz Harana	0,0	0,0	66,7	33,3	0,0
* Arabarri, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Elkarrekin Anonimoa	0,0	0,0	55,9	44,1	0,0
Kursaal Fundazioa	0,0	0,0	50,0	50,0	0,0
Euskal Museoa Bilbao	0,0	0,0	50,0	50,0	0,0
Bilboko Artelan Berreginen Museoa	0,0	0,0	50,0	50,0	0,0


* 2008ko estatistikan sartzen ez ziren erakundeak.

Partaidetza anitzeko erakundeak oro har hartuta, diru-sarrera nagusiak beste iturri batzuetakoak dituzte, hiru erakunde hauek baliabideak sortzeko duten gaitasuna dela medio: FMGB, Zinemaldia eta Musika Hamabostaldia. Baliabideen iturrietan bigarren tokian foru-aldundiak daude, erakunde garrantzitsuetan parte hartzen baitute, udalekin batera. Hirugarren eta laugarren tokietan daude, hurrenez hurren, Eusko jaurlaritza eta udalak.

Estatuaren transferentziak Balenciaga Fundazioa³, Donostiako Zinemaldiak eta Musika Hamabostaldiak jasotzen dituzte.

14. irudia **Hainbat administrazio publikoren partaidetza duten sozietate eta fundazio publikoen kulturarako diru-sarrerak, erakunde finantzatzailearen arabera**

2008-2010



³ Espainiako gobernutik datozen diru-sarrerek gora egin dute, hain zuzen ere, Cristóbal Balenciaga Fundazioari egindako ekarpena dela medio (2,8 milioi euro 2010ean).

SEKTOREKAKO IKUSPEGIA


Kapitulu honetan espezializazioen arabera aztertzen dira mota honetako erakundeak. Hala, bada, espezializatutzat jotzen dira kulturaren arlo jakin batean diharduten erakundeak (liburutegiak, museoak, orkestrak, musika-eskolak, zinema-jaialdiak, etab.). Espezializatu gabeak, berriz, mota askotako kultura-zerbitzuak ematen dituzten udal-esparruko erakundeak dira, batik bat.

3.1. Erakunde espezializatuak

EITBren aurrekontuak lehen tokian jartzen ditu hedabideak; arte eta industriren aurrekontua 62,1 milioi eurokoa da, batez ere musikarekin lotutako erakundeen garrantzia dela eta (17 erakunde dira guztira, orkestrak, kontserbatorioak, musika-eskolak eta Musika Hamabostaldia). Ondarearekin lotutako erakundeak 54,8 milioi euro biltzen dituzte.

15. irudia **Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publiko espezializatuen kopurua eta likidatutako kultura-gastua sektorearen arabera**

2010




Gisa honetako erakundeek administrazioetako transferentziak jasotzen dituzte eta, hortaz, gastua zuzenean gauzatzen; ondorioz, gastu arruntak hartzen du aurrekontuaren 10 eurotik 9 (%33 langile-gastuak dira eta %60 inguru gastu arruntak).

Enpleguari erreparatuta, EITBri buruz esandakoaz gainera, nabarmentzekoak dira, arte eta industriren arloan sartutako musika interpretazio eta irakaskuntzan diharduten erakundeek sortu dituzten enpleguak.

16. irudia

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publiko espezializatuen kultura-gastu likidatua, arlo ekonomikoaren arabera

2008-2010



17. irudia

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publikoetako kultura-enplegua, sektorearen arabera

2008-2010


Sektorea	Urtea	Kultura-enplegua	
		Kop.	%
Ondarea	2008	441,7	20,90
	2010	495,7	21,82
Arteak eta industriak	2008	724,2	34,30
	2010	761,0	33,50
Hedabideak	2008	947,0	44,8
	2010	1.015,0	49,1
Guztira	2008	2.112,9	100,0
	2010	2.271,6	100,0

3.2. Erakunde espezializatu gabeak

Espezializatu gabeko erakundeen multzoa osatzen dute udaletako kultura-kudeaketan diharduten erakunde autonomoek eta sozietate publikoek, bai eta udalaz gaindiko bi erakundek ere⁴.

Musika eta kultura-ekintza nabarmentzen dira espezializatu gabeko erakundeen jardueretan, antzeko gastu-aurrekontuekin (10 milioi euro inguru). Aipagarria da, orobat, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara bideratutako gastua (aurrekontuen %15 inguru). 7 eta 10 euro artean bideratzen dituzte beste jarduera batzuetara, hala nola, jaietara, arte eszenikoetara, liburutegietara eta museoetara.

18. irudia **Espezializatu gabeko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazio publikoen kultura-gastu likidatua, gastuaren helmugaren arabera** 2010




Gastuaren nolakotasunak agerian uzten du erakunde-mota horien izaera exekutatzailerik. 10 eurotik 9 langile-gastuetara (2010ean %32) eta gastu arruntera bideratzen dira (2010ean %60,7).

⁴ Euskalduna jauregia eta Tabakalera.

19. irudia **Espezializatu gabeko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazio publikoen kultura-gastu likidatua, arlo ekonomikoaren arabera**

2008-2010



Udal-esparruko erakunde espezializatu gabeak

2008 eta 2010 urteen artean, udaletako kultura-zerbitzuak ematen dituzten erakundeen gastua (13 eragile) %3,4 jaitsi zen, enplegua berriz, zertxobait igo zen. Gainera, estatistikaren edizio bien artean ez da aldaketarik izan eragileon erroldan. Azpimarratzekoa da, baita ere, tokiko erakunde horiek 500 enplegu inguru dituztela.


Kultura-zerbitzuak ematen dituzten udal-erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publikoen gastu arruntak xehetasunez aztertuta jakin daiteke gastuaren zer zati bideratzen duten egitura-gastuetara eta zer jarduerak programatzera.

Aurrekontuaren 10 eurotik 6 pertsonala eta noizbehinkako kultura zerbitzu eta jarduerak azpikontratazeko baliatzen dituzte (%47,9 jarduera eta zerbitzuetarako eta %14,9 erakundez kanpoko laguntza-pertsonalerako).

20. irudia **Udal-esparruko espezializatu gabeko erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publikoek likidatutako kultura-gastua eta kultura-enplegu publikoa, udalerriaren tamainaren arabera** 2008-2010

Udalerriaren tamaina	Urtea	Likidatutako kultura-gastua		Kultura-enplegua	
		€	%	€	%
>20.000 biztanle	2008	42.965.172	81,50	379,4	77,05
	2010	41.461.535	81,40	411,9	81,10
5.000 – 20.000 biztanle bitartean	2008	9.782.046	18,5	113	22,95
	2010	9.502.164	18,6	96,1	18,9
<5.000 biztanle	2008	0	0,0	0,0	0,0
	2010	0	0,0	0,0	0,0
Udalak guztira	2008	52.747.218	100,0	492,4	100,0
	2010	50.963.699	100,0	508,0	100,0

21. irudia **Udal-esparruko espezializatu gabeko erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta fundazio publikoek ondasun eta zerbitzuetara bideratutako kultura-gastuaren banaketa** 2010




LURRALDE-IKUSPUNTUA

Lurraldeei erreparatuta berezitasunak azaleratzen dira aztertutako erakunde autonomoen, sozietateen eta fundazio publikoen ezaugarrietan. Desberdintasun horien arrazoi gisa aipa daitezke, besteak beste, lurralde-konfigurazioa, ondare-baliabideak, historikoki finkatutako kultura-erakundeak izatea eta politika publikoak.

Espezializazioa aintzat hartuz gero, bistakoa da Araban ez dagoela espezializatu gabeko erakunderik. Lurralde horretan, Artium alde batera utzita, musika- eta dantza-irakaskuntzan dihardute espezializatutako erakundeek, bai eta ondarea babesten eta ondareari balioa ematen ere. Gipuzkoan espezializazioa da nagusi, musikan, zehazki (8 erakunde). Bizkaian, espezializatutako erakundeak gehiengoa badira ere, nabarmena da kultura-zerbitzuak ematen dituzten erakunde autonomoen kopurua (8 erakunde), gainera, azken horiek kultura-kudeaketa publikoaren eredu bat sortu dute, lurralde honen bereizgarri bilakatu dena. Espezializatutako erakundeen artean azpimarragarriak dira musikaren sektorea, museoak eta EITB, azken horren neurria dela eta.

22. irudia **Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publiko kopurua, jarduera motaren eta lurralde historikoaren arabera** 2008-2010




Likidatutako gastuari eta kultura-enplegu publikoari (erakundearena zein azpikontratatua) lotutako adierazleek agerian uzten dute EITBren pisua Bizkaiko emaitzetan, baita erakunde horren neurria ere, aztertutako gainerako erakundeekin alderatuta (2008an, 187,6 milioi euro eta 9447 lanpostu; 2010ean, 179,6 milioi euro eta 1.015 lanpostu). Hala ere, erakunde

publiko hori alde batera utzita, Bizkaia da oraindik orain EAEko erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publiko gehien dituen lurraldea; horrela bada, gainerako lurralde historikoen gainetik dago likidatutako gastuari eta enpleguari dagokionez.

23. irudia

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio publikoen likidatutako kultura-gastua eta kultura-enplegu publikoa (lanpostuak urtean), lurralde historikoaren arabera

2008-2010



- 2010ean EAEn kultura-arloan diharduten 50 erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publikoak aztertu dira txosten honetan⁵. Horien guztien artean 350,3 milioi euroko gastua eta urte osoko 2.582 lanpostu dituzte (170,7 milioi euro eta 1.567 lanpostu EITB sartu gabe).
- Administrazio bakar baten %100eko partaidetza duten erakundeei erreparatuta, hau da ikuspegi orokorra: Eusko Jaurlaritzak osorik bereak diren bi sozietate publiko ditu, eta foru-aldundiek beste hainbeste (Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoak, biak). Hiriburuek 6 sozietate publiko eta erakunde autonomo dituzte; gainerako udalen mende daude beste 24 erakunde.
- Beste 16 sozietate eta fundazio publikok hainbat administrazioen partaidetza dute. Estatuak horietako hirutan hartzen du parte; Eusko Jaurlaritza, foru-aldundia eta udalaren artean bakoitzak heren bat ematen duen partaidetza-eredua, berriz, bost erakundetan ikus daiteke. Hiru kasutan foru aldundiak eta hiriburuak hartzen dute parte, batera.
- Lurraldeari erreparatzeak agerian uzten du aztertutako erakunde publikoen, sozietateen eta fundazio publikoen profila: Arabakoak espezializatuak dira denak, eta Gipuzkoan musika-arloko espezializazioa da nagusi. Bizkaian nabarmena da kultura-zerbitzuak ematen dituzten erakunde autonomoen kopurua.
- Erakunde autonomo, sozietate eta fundazio publikoen mapa askotarikoa da sektoreei eta erabilitako kudeaketa-ereduei dagokienez, musika-eskolak (erakunde autonomoak, gehien bat) eta espezializatu gabeko udal-erakunde autonomoak alde batera utzita.

⁵ Erakunde horiek administrazio-maila ezberdinen mendekoak dira, eta 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso dituzte administrazio publikoen eskutik.

Erakundeen zerrenda forma juridikoaren arabera

Sozietate publikoen zerrenda

* Arabarri, Sociedad Anonima de Gestión del Patrimonio Cultural
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa (Tabakalera)
Donostia Kultura
Euskal Irrati Telebista
Donostiako Nazioarteko Zinemaldia S.A.
Kulturnieta SA
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa S.A.
Euskalduna Jauregia
Donostiako Musika Hamabostaldia
Rekalde Aretoa
Arriaga Antzokia
Barakaldo Antzokia S.A.

Fundazio publikoen zerrenda

Gernika-Lumoko Kultur Etxea
FMGB Guggenheim Bilbao Museoa
Arabako ARTIUM Fundazioa
* Santa Maria Katedrala Fundazioa
* Cristóbal Balenciaga Fundazioa
* Ekain Fundazioa
Juan Crisóstomo de Arriaga - Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa
Kursaal Fundazioa
Bilboko Arte Eder Museoa Fundazioa
* Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Soinu Atadia Udal Fundazioa
* Añanako Gatz Harana Fundazioa
Euskal Museoa Bilbao
Bilboko Artelan Berreginen Museoa

* 2008ko estatistikan sartu gabeko erakundeak

Erakunde autonomoen zerrenda

Ametx Zornotzako Kultura eta Euskara Zerbitzurako Herri Erakundea
Arratiako Musika Eskola
Astarloa Kulturgintza
Astiunerako Udal Erakundea
Getxoko Kultura Aretoa
Basauriko Udal Kultur Etxea
Galdakaoko Musika Eskola
Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa
Andres Isasi Musika Eskola (Getxo)
Juan Bautista Gisasola Musika Eskola (Eibar)
Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioa
Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola
Luis Aramburu Udal Musika Eskola
Gorlizko Kultur Etxea
Herri Antzokia (Ordizia)
Lekeitioko Udal Kultur Erakundea
O.A.L. Bilbaomusika
Zarauzko Turismo Bulegoa
Deba Musikal Patronatua
Debako Udal Liburutegiko Patronatua
«Errenteria Musikal» Udal Musika Patronatua
Zumaiako Udal Musika Patronatua
Serantes Kultur Aretoa
Urkabustaiz Musika Eskola

Erakundeen zerrenda lurralde historikoen arabera

Araba

- * Arabarri, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Elkarte Anonimoa
- Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa
- Luis Aramburu Udal Musika Eskola
- Arabako Artium Fundazioa
- * Santa Maria Katedrala Fundazioa
- * Añanako Gatz Harana Fundazioa
- Urkabustaiz Musika Eskola

Bizkaia

- Ametx Zornotzako Kultura eta Euskara Zerbitzurako Herri Erakundea
- Arratiako Musika Eskola
- Astarloa Kulturgintza
- Astiunerako Udal Erakundea
- Getxoko Kultur Etxea
- Gernika-Lumoko Kultur Etxea
- Basauriko Udal Kultur Etxea
- Galdakaoko Musika Jardueretarako Udal Zentroa
- Andres Isasi Musika Eskola (Getxo)
- Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioa
- Euskal Irrati Telebista
- FMGB Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa
- Juan Crisóstomo de Arriaga - Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa
- Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa
- * Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
- Soinu Atadia Udal Fundazio Publikoa
- Gorlizko Kultur Etxea
- Lekeitioko Udal Kultur Erakundea
- Euskal Museoa Bilbao
- Bilboko Artelan Berreginen Museoa
- Bilbao Musika TAE
- Euskalduna jauregia
- Rekalde Aretoa
- Serantes Kultur Aretoa
- Arriaga Antzokia SA
- Barakaldo Antzokia SA

* 2008ko estatistikan sartu gabeko erakundeak.

Gipuzkoa

Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea SA (Tabakalera)

Donostia Kultura

Juan Bautista Gisasola Musika Eskola (Eibar)

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola

Donostia Zinemaldia SA

* Cristóbal Balenciaga Fundazioa

* Ekain Fundazioa

Kursaal Fundazioa

Herri Antzokia (Ordizia)

Kulturnieta SA

Zarauzko Turismo Bulegoa

Euskadiko Orkestra SA

Deba Musikal Patronatua

Debako Udal Liburutegia Patronatua

Errearteria Musikal Udal Musika Patronatua

Zumaiako Musika Patronatua

Donostiako Musika Hamabostaldia

* 2008ko estatistikan sartu gabeko erakundeak.

Erakundeen zerrenda espezializazioaren/ sektorearen arabera

Espezializatu gabeak

Ametx Zornotzako Kultura eta Euskara Zerbitzurako Herri Erakundea
Astarloa Kulturgintza
Astiunerako Udal Erakundea
Getxoko Kultur Etxea
Gernika-Lumoko Kultur Etxea
Basauriko Udal Kultur Etxea
Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea SA (Tabakalera)
Donostia Kultura
Gorlizko Kultur Etxea
Herri Antzokia (Ordizia)
Kulturnieta SA
Lekeitioko Udal Kultur Erakundea
Zarauzko Turismo Bulegoa
Euskalduna jauregia
Serantes Kultur Aretoa

Espezializatuak

• Ondarea eta arkeologia

- * Arabarri, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Elkartea Anonimoa
- * Santa Maria Katedrala Fundazioa
- * Ekain Fundazioa
- * Añanako Gatz Harana Fundazioa

• Liburutegiak

Debako Udal Liburutegia Patronatua

• Museoak

FMGB Guggenheim Bilbao Museoa
Arabako Artium Fundazioa
* Cristóbal Balenciaga Fundazioa
Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa
* Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Euskal Museoa Bilbao
Bilboko Artelan Berreginen Museoa

* 2008ko estatistikan sartu gabeko erakundeak.

- **Antzerkia eta dantza**

Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa
Arriaga Antzokia SA
Barakaldo Antzokia SA

- **Musika**

Arratiako Musika Eskola
Galdakaoko Musika Jardueretarako Udal Zentroa
Andres Isasi Musika Eskola (Getxo)
Juan Bautista Gisasola Musika Eskola (Eibar)
Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioa
Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola
Luis Aramburu Udal Musika Eskola
Juan Crisóstomo de Arriaga - Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa
Kursaal Fundazioa
Soinu Atadia Udal Fundazio Publikoa
Bilbao Musika TAE
Euskadiko Orkestra SA
Deba Musikal Patronatua
Errenteria Musikal Udal Musika Patronatua
Zumaiako Musika Patronatua
Donostiako Musika Hamabostaldia
Urkabustaiz Musika Eskola

- **Ikusizko arteak**


Rekalde Aretoa

- **Zinema eta ikus-entzunezkoak**

Donostia Zinemaldia SA.

- **Hedabideak**

Euskal Irrati Telebista



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA